sanmarkos
Mankomunitatea

**ACTA Nº 285/17**

En la Ciudad de San Sebastián y en la Sala de Reuniones de la Mancomunidad de San Marcos, sita en la Calle Vitoria-Gasteiz nº 10, siendo las nueve horas de la mañana del día 21 de diciembre del año dos mil diecisiete, se reúne la junta de la Mancomunidad de San Marcos, a fin de celebrar Sesión extraordinaria, previa convocatoria cursada al efecto con fecha 15 de diciembre de 2017.

Asisten los siguientes vocales de la Mancomunidad: Don Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga (Presidente), por el Ayuntamiento de Donostia–San Sebastián; Don Bernardo Lemos Taberna y Don Miguel Maria Rodriguez Barbero, por el Ayuntamiento de Errenteria; Doña Lore Suarez Linazasoro y Doña Miriam Cano Puy, por el Ayuntamiento de Pasaia; Don Martin Aldaya Olasagasti por el Ayuntamiento de Hernani; Don Jon Antxordoki Rekondo (suplente) y Don Agustin Valdivia Calvo, por el Ayuntamiento de Lasarte–Oria; Don Juan Martin Arregui Sagüés y Doña Zorione Etxezarraga Ortuondo (suplente) por el Ayuntamiento de Astigarraga; Don Miguel Angel Sanchez Antunez, por el Ayuntamiento de Lezo; Doña Eneritz Arbelaitz Sarasti y Don Iñaki Pikabea Lasa, por el Ayuntamiento de Oiartzun y Don Xabier Arregi Iparragirre, por el Ayuntamiento de Usurbil.

No han asistido Don Miguel Angel Diez Bustos, representante del ayuntamiento de Donostia-San Sebastián; José Angel Sánchez Gallardo, representante del ayuntamiento de Lezo; Doña Mª Coro Echeverria Tolosa, representante del ayuntamiento de Hernani; Don Mikel Pagola Tolosa y Don Jorge Segurado Iriondo, representantes del ayuntamiento de Urnieta y Doña Irene García Palacios, representante del ayuntamiento de Usurbil.

Realiza las funciones de secretario Don Xabier Loiola Aristi. Lo nombró la Junta en sesión celebrada el 9 de febrero de 2012 para cumplir con ese cometido, atendiendo al artículo 7 de los Estatutos de la Mancomunidad.

Asisten también Don Julián Ortiz Arruabarrena, interventor de la

**285/17. AKTA**

Donostiako hirian, San Markoko Mankomunitateko Bilera Aretoan, Vitoria-Gasteiz kaleko 10. zenbakian, bi mila eta hamazazpiko abenduaren 21eko goizeko bederatzitan, San Markoko Mankomunitatearen Batzarra bildu da, ezohiko saioa egiteko. Deialdia aldez aurretik egin zen, hain zuzen ere, 2017ko abenduaren 15ean.

Bertan hurrengo Mankomunitateko kideak izan dira: Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jauna (Lehendakaria), Donostiako Udalari ordezkatuz; Bernardo Lemos Taberna jauna eta Miguel Maria Rodriguez Barbero jauna, Errenteriako Udalari ordezkatuz; Lore Suarez Linazasoro andrea eta Miriam Cano Puy andrea, Pasaiako Udalari ordezkatuz; Martin Aldaya Olasagasti jauna, Hernaniko Udalari ordezkatuz; Jon Antxordoki Rekondo jauna (ordezkoa) eta Agustin Valdivia Calvo jauna, Lasarte-Oriako Udalari ordezkatuz; Juan Martin Arregui Sagüés jauna eta Zorione Etxezarraga Ortuondo andrea (ordezkoa) Astigarragako udalari ordezkatuz; Miguel Angel Sanchez Antunez jauna, Lezoko Udalari ordezkatuz; Eneritz Arbelaitz Sarasti andrea eta Iñaki Pikabea Lasa jauna, Oiartzungo udalari ordezkatuz eta Xabier Arregi Iparragirre jauna, Usurbilgo Udalari ordezkatuz.

Ez dira bileran izan Miguel Angel Diez Bustos jauna, Donostiako Udaleko ordezkaria; Jose Angel Sanchez Gallardo jauna, Lezoko Udaleko ordezkaria; Mª Coro Echeverria Tolosa andrea, Hernaniko Udaleko ordezkaria; Mikel Pagola Tolosa jauna eta Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako udaleko ordezkariak, eta Irene García Palacios andrea, Usurbileko Udaleko ordezkaria.

Idazkariaren lanetan Xabier Loiola Aristi jaunak jardun du. Eginkizun horietarako Junta honek izendatu zuen joan den 2012ko otsailaren 9ko batzarrean, Mankomunitateko estatutuek 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Halaber, bileran dira Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Mankomunitateko kontu-

Mancomunidad, Don Pedro Ugartemendia Garro, gerente de la Mancomunidad y Arantxa Ezeiza Zabala, administrativo de la Mancomunidad.

hartzailea, Pedro Ugartemendia Garro jauna, Mankomunitateko kudeatzailea eta Arantxa Ezeiza Zabala, Mankomunitateko administraria.

**1.- MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS MUNICIPALES O ASIMILABLES A ÉSTOS GENERADOS POR LOS USUARIOS DE LOS POLÍGONOS INDUSTRIALES, PARQUES TECNOLÓGICOS Y EMPRESARIALES UBICADOS EN EL ÁMBITO DE LA MANCOMUNIDAD.**

**1.- MANKOMUNITATEKO EREMUAN KOKATUTAKO INDUSTRIA-POLIGONOETAN ETA TEKNOLOGIA NAHIZ ENPRESA-PARKEETAKO ERABILTZAILEEK SORTUTAKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA-ZERBITZUAREN KONTRATU ALDAKETA.**

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"Con fecha 6 de junio de 2013 se formalizó con la empresa Fomento de Construcciones y Contratas S.A. (A-28037224) el contrato del servicio de recogida de residuos municipales o asimilables generados por los usuarios de los Polígonos Industriales ubicados en el ámbito de la Mancomunidad. El pliego de cláusulas administrativas establece lo siguiente en su cláusula 11 MODIFICACIONES DEL CONTRATO:

"Al amparo de lo establecido en el artículo 105.1 del TRLCSP (Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público), este pliego prevé la modificación por parte de la Mancomunidad de San Marcos del contrato por razones de interés público en los siguientes supuestos:

(...)

B) Modificación de las competencias cedidas por los Ayuntamientos a la Mancomunidad que influyan al ámbito de prestación del servicio definido en la cláusula 1 de este Pliego. En tal situación, el contrato se ajustará a esas modificaciones de tal modo que se sumen o se eliminen del ámbito de prestación del servicio en cada caso.

Atendiendo al artículo 106 del TRLCSP (Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público), las dos modificaciones contempladas expresamente en esta cláusula se realizarán de la siguiente manera:

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

"2013ko ekainaren 6an Fomento de Construcciones y Contratas S.A. enpresarekin (A-28037224) Mankomunitateko eremuetako industria poligonoetako erabiltzaileek sortutako udal hondakinak eta asimilagarriak biltzeko zerbitzuari buruzko kontratua gauzatu zen. Administrazio klausulen agiriak KONTRATUAREN ALDAKETAK 11 klausulan hurrengoa xedatzen du:

"SPKLTBk (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina) 105.1. artikuluan xedatutakoaren babesean, agiri honek San Markoko Mankomunitatearen aldetik kontratua aldatzea aurrez ikusten du, arrazoiek interes publikoari erantzuten badizkiote. Hona hemen ustezkoak:

(...)

B) Udalek Mankomunitateari emandako aginpideak aldatzea, Agiriaren 1. klausulan definitutako zerbitzuaren eremuan eragiten badute. Halakoetan, kontratuak aldaketa horietara egokitu beharko du, kasuak kasu zerbitzuaren eremuak batu edo deuseztatzeko.

SPKLTBk (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina) 106. artikuluan xedatutakoarekin bat, berariaz klausula honetan aurrez ikusitako aldaketak hurrengo moduan gauzatuko dira:

1. En las dos situaciones previstas, las modificaciones supondrán modificaciones proporcionales en el precio. El parámetro que establecerá la mencionada proporcionalidad será en número de metros cuadrados sumados o restados en función de las superficies de las empresas añadidas o eliminadas.

1. Aurrez ikusitako bi egoeratan aldaketen ondorioz prezioan aldaketa proportzionalak egongo dira. Aipatu proportzionaltasuna xedatuko duen parametroa erantsitako edo deuseztatutako enpresen azalera kontuan hartuta, batu edo kendu den metro karratuen kopurua izango da.

2. Tras modificarse el contrato fruto de lo previsto en esta cláusula, el adjudicatario podrá unilateralmente anular el contrato únicamente si la modificación supone una modificación en el precio inicial superior al 45%.

2. Klausulan aurrez ikusitakoaren ondorioz kontratua aldatu ostean, esleipendunak bere aldetik kontratua baliogabe dezake, bakarrik aldaketak hasierako prezioa % 45 baino gehiago aldatzen badu.

3. El contratista deberá obligatoriamente asumir modificaciones que no superen el 45% del precio del contrato, tanto si supone un incremento del precio, como si se reduce. Dichas modificaciones no dan derecho alguno a percibir indemnizaciones.

3. Kontratistak nahitaez onartu beharko ditu kontratuaren prezioaren % 45a gainditzen ez duten aldaketak, bai prezioa gehituz gero, baita murrizten bada ere. Aldaketek kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik ez dute ematen.

Tras la notificación del Ayuntamiento de Hernani de fecha 2 de octubre de hacer efectiva la recuperación de su competencia en materia de recogida selectiva en polígonos industriales a partir del próximo 1 de enero de 2018, se ha informado a la actual prestadora del servicio – FCC-, como al ayuntamiento de Hernani como entidad cesionaria, de los eventuales derechos y obligaciones laborales de una y otra parte.

Hernaniko Udalak urriaren 2an 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera industria poligonoetan gaikako bilketaren arloan aginpidea berreskuratu behar zuela jakinarazi zuen eta horren berri izan ostean, egun zerbitzua eskaintzen duenari, FCC enpresari, jakinarazi zaio Hernaniko Udala dela alde baten eta bestearen lan eskubide eta betebeharren emailea.

El expediente administrativo contiene informe del Director Gerente y de los servicios técnicos de la mancomunidad en el que se dimensiona la modificación, detallando los metros cuadrados totales de los usuarios de Hernani suponen un total de 14,60% de la superficie total del servicio actualmente contratado.

Administrazio espedienteak Mankomunitateko zuzendari kudeatzailearen eta Zerbitzu Teknikoen txostena du eta bertan aldaketa dimentsionatzen da. Ildo horri eutsiz, Hernaniko erabiltzaileen guztizko metro karratuak guztira egun kontratatutako zerbitzuaren azalera guztiaren % 14,60 dira.

Tras comunicarse la modificación propuesta al contratista, este no se ha opuesto y ha manifestado la existencia de un derecho de subrogación por parte de los trabajadores que realizan el servicio.

Proposatutako aldaketa kontratistari jakinarazi ondoren, ez du kontrakotasunik azaldu eta zerbitzua egiten duten langileen aldetik subrogazio eskubidea dagoela adierazi du.

sanmarkos
Mankomunitatea

Por todo ello, se realiza la siguiente **PROPUESTA** a la Junta:

1.- APROBAR, en base a la cláusula 11 de los pliegos administrativos que tienen validez contractual, la modificación en el contrato en vigor de *recogida selectiva de residuos municipales o asimilables a éstos generados por los usuarios de los Polígonos Industriales, Parques Tecnológicos y Empresariales ubicados en el ámbito de la Mancomunidad. La modificación debe de incluir la reducción del ámbito de actuación, eliminando el municipio de Hernani y la correspondiente reducción en el precio de un 14,60% sobre los precios en vigor a la fecha de la modificación.*

**2.-** Comunicar el acuerdo al Ayuntamiento de Hernani, con el fin de que garantice los posibles derechos de subrogación de los trabajadores afectados por la reducción del contrato.

**3.-** Autorizar al PRESIDENTE para la firma de la modificación del contrato con efectos 1 de Enero de 2018 en los términos detallados en el presente acuerdo."

Martin Aldaya solicita votar por separado cada propuesta de acuerdo, ya que desean votar en contra del punto 2, basándose en que menciona supuestos derechos de subrogación, en contraposición con lo ocurrido al aprobar el convenio para la recogida en Astigarraga. Martín Aldaya observa un cambio de criterio.

En palabras del presidente la propuesta habla en su punto 2 de una posible opción y de notificarla al Ayuntamiento de Hernani.

Acepta votar las propuestas de acuerdo separadamente.

El punto 1 y 3 de la propuesta de acuerdo se aprueban por unanimidad; y también se aprueba el acuerdo del punto 2 con 65 votos a favor y 40 en contra (representantes de los Ayuntamientos de Errenteria, Hernani, Oiartzun y Usurbil).

Horren guztiarengatik, Batzarrari ondorengo **PROPOSAMENA** egiten zaio:

1.- Kontratuaren balioa duten administrazio agiriek 11. klausulan xedatzen dutenean oinarrituta, *Mankomunitatearen eremuan Industria Poligonoetako, Teknologia Parkeetako nahiz Enpresa Parkeetako erabiltzaileek sortzen dituzten udal hondakinak eta asimilagarriak gaika biltzeko* indarrean dagoen kontratuaren aldaketa ONARTZEA. *Aldaketaren ondorioz jarduera eremua murriztu behar da, Hernaniko udalerria deuseztatu behar baita eta, bide batez, aldaketaren datan indarrean dauden prezioak % 14,60 gutxituko dira.*

**2.-** Erabakia Hernaniko Udalari jakinaraziko zaio, kontratua murrizteagatik nahasiak dauden langileen balizko subrogazio eskubideak bermatzeko.

**3.-** LEHENDAKARIARI baimena ematen zaio, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin kontratuaren aldaketa sinatzeko, erabaki honetan zehaztutako baldintzetan."

Martin Aldayak erabaki proposamenak banan banan bozkatzea eskatu du, 2. puntuaren aurka bozkatu nahi dutelako, bertan balizko subrogazio eskubideak aipatzen direlako, Astigarragako udalarekin bilketa hitzarmena onartzerakoan egin ez bezala. Irizpide aldaketa bat ikusten du Martin Aldayak.

Lehendakariak dio balizko aukeraz ari dela proposamena 2. puntu horretan, horretaz ohartu nahirik Hernaniko Udala.

Onartzen du proposamenaren erabakiak banan bana bozkatzea.

Proposamenaren 1go eta 3. puntuak ahobatez onartzen dira eta 2. erabakia ere onartzen da, alde 65 botorekin eta aurkako 40rekin (Errenteria, Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo udaletako ordezkarienak).

sanmarkos
Mankomunitatea

Por tanto, la Junta aprueba la propuesta presentada por el presidente.

Según señala el presidente, al hilo de la nueva ley sobre contratos, se deberá reflexionar en torno a las opciones encaminadas a agilizar los procedimientos de contratación y que no ocurra como en este caso, en el que sea necesario convocar una Junta para aprobar la modificación del citado contrato.

Además, el presidente recuerda que el plazo para presentar las alegaciones a los presupuestos de la Mancomunidad finaliza mañana. Del mismo modo, anuncia que si hubiera alguna alegación, realizará una convocatoria de urgencia a la Junta la semana que viene para dar respuesta a las mismas.

De no presentarse alegación alguna, los presupuestos quedarán aprobados automáticamente, sin necesidad de realizar una nueva Junta. De ser así, esta resultaría la última Junta del año y el presidente aprovecha para felicitar el año nuevo a los junteros/as.

Ondorioz, lehendakariak aurkeztutako proposamena onartu du batzarrak.

Lehendakariak dio Kontratu Lege berria aitzaki hartuta, hausnartu beharko dela kontratazio prozedurak arintzeko aukeraz, eta ez kasu honetan bezala kontratu bat aldatzeko batzarra egin behar izatea.

Lehendakariak gogoratu du ere Mankomunitateko aurrekontuei alegazioak aurkezteko epea bihar bukatzen dela. Eta iragarri du alegaziorik tarteratuko balitz horiek erantzuteko batzarra urjentziaz deituko duela datorren astean.

Alegaziorik aurkeztu ezean behin betiko onarpen automatikoa izango dute aurrekontuak, beste batzarrik behar gabe. Hala balitz gaurkoa urteko azken batzarra izango litzake eta aprobetxatu du lehendakariak urte berri ona opatzeko batzarkideei.

Cierre de acta

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las nueve horas y quince minutos de la mañana del día expresado en el encabezamiento, extendiéndose de todo su contenido la presente ACTA que firmará la PRESIDENCIA conmigo, el SECRETARIO, de que DOY FE,

Akta ixtea

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko goizeko bederatziak eta laurden direnean. Bere eduki guztiarekin AKTA hau idatzi da eta LEHENDAKARITZAK nirekin, IDAZKARIA naizen honekin batera, sinatuko du. Horrez gain, nik neuk FEDE EMATEN dut.

**EL PRESIDENTE/ LEHENDAKARIAK**

**EL SECRETARIO/IDAZKARIAK**

sanmarko
Gasteiz, 10. 20018 Donostia
Tel 943 214 977